

## LASCARAY IKERGUNEA

### **NORBERE ALDETIK JOKATZEN DUTEN UNIBERTSITATE BARRUKO ESKATZAILEEK EDOTA UNIBERTSITATEZ KANPOKO ESATZAILEEK IRAKASKUNTZA ETA BILERA ARETOAK ALOKATZEKO PROZEDURA**

1.- Lascaray Ikerkuneak baditu irakaskuntzarako eta bileretarako aretoak. Honako hauek dira norbere aldetik jokatzeko duten unibertsitate barruko eskatzaileei edota unibertsitatez kanpoko eskatzaileei aplikatu beharreko tarifak 2023. urtean:

<b>Aretoa</b>	<b>Prezioa</b>	<b>Edukiera</b>	<b>Gela kopurua</b>
Aretoa nagusia	Egun bat: 1.369 € Egun erdia: 685 € Ordu bat: 183 €	40 pertsona	gela 1
Bilera aretoak	Egun bat: 364 € Egun erdia: 183 € Ordu bat: 36 €	12 pertsona	2 gela
Mintegiak	Egun bat: 364 € Egun erdia: 183 € Ordu bat: 36 €	25 pertsona	2 gela

2.- Aretoak eraikina irekita dagoen egunetan eta orduetan bakarrik erreserba daitezke, hau da, 08:00etatik 21:00etara, jaiegunak kanpo utzita.

3.- Orduetegi dagokienez, egun bat 12 ordu dira (08:00etatik 20:00etara) eta egun erdia sei ordu. Gainerako kasuetan, ordueteko tarifa aplikatuko da, hau da, orduko tarifa bider gela erabiltzeko hartutako ordu kopurua.

4.- Erakunde pribatuen kasuan, prezio horiei dagokien BEZa erantsiko zaie.

5.- Erreserba ezeztatuz gero, ikerguneari jakinarazi beharko zaio lanegun bat lehenago gutxienez.

6.- Eskatzaileek ikerguneko langileek adierazten dizkieten baldintza eta eskakizun guztiak bete eta errespetatu beharko dituzte. Aretoen erabilera desegokiak edo arduragabeak eragindako kalteak erreserba egin duenari egotziko zaizkio.

7.- Entitate edo pertsona eskatzaileek erakusgai jarritako materiala montatu/desmontatu beharko dute, eta eraineko instalazioak jardueraren aurretik zeuden bezala utzi. Eraikinak ez du erantzukizunik hartuko erakusgai jarritako materialaren gainean.

8.- Aretoei buruzko informazio gehiago behar izanez gero:  
<https://www.ehu.eus/eu/web/lascarayikergunea/irakaskuntzarako-guneak>.  
Erreserbak egiteko: 945014500; 945014508

9.- Eskatzaileek bete beharko dute eskaera orria, eta onartu, alde batetik, eskatutako jarduera egikaritzeko baldintzak, eta bestetik, UPV/EHUko espazioak erabiltzeko erabakia.

10.- Alokairu hauei aplikatu beharreko arauak UPV/EHUren 2023ko aurrekontuen III. liburukian ezarritakoak dira, III. eranskina (UPV/EHUko lokalak eta instalazioak erabiltzeko tarifak), baita 2018ko Arabako Campuseko Ikastegi eta Eraikinen Barne eta Kanpoko Guneen Erreserba eta Erabilerako Instrukzioa.